




AZALERA HANDIETAKO SALMENTAK %9,5 EGIN DU GORA


Azalera handietako salmentak
Urte arteko tasa



Saltoki handietako eta elikadura kateetako salmentak %9,5 igo ziren martxoan. Urtetik urterako hazkunde handi hori elikadurarekin zerikusirik ez duten produktuen salmentak izan duen bultzada handiaren ondorioz lortu da (% 70,6); izan ere, 2020ko hilabete batekin alderatzen da, non, neurri batean, murrizketek produktu horiek erostea eragotzi baitzuten.

TXIKIZKAKO MERKATARITZA %21,7 IGO DA MARTXOAN

Txikizkako merkataritzako salmentak
Urte arteko tasa




INEk argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko txikizkako merkataritzan salmentak %21,7 hazi ziren martxoan, iazko hilabete berarekin alderatuta.** Igoera handi hori konfinamenduaren eta murrizketa gogorren mende zegoen hilabete batekin alderatuta lortzen da.



EUROPAKO EKONOMIA BERRIRO SARTU DA ATZERALDIAN


Euroguneako BPGaren bilakaera
Hiruhileko arteko tasa



Euroguneak hiruhileko arteko beheraka jaso du bigarren hiruhilekoz jarraian, eta, beraz, tekniki atzeraldian sartu da. 2020ko laugarren hiruhilekoan $-0,7$ erregistratu ondoren, 2021eko lehen hiruhilekoko tasa $-0,6$ izan da, eta urte arteko aldakuntza tasa $-1,8$ ra arte iritsi da, hots, aurreko zifra hiru puntu hobetuz.

SENTIMENDU EKONOMIKOA NABARMEN HOBETU DA

Sentimendu ekonomikoa
Eurogunea



Euroguneako sentimendu ekonomikoa **110,3ra** iritsi da apirilean, batez besteko historikoa (100,0) baino askoz gorago kokatuta. Adierazle horren atal guztiak, zerbitzuena izan ezik, eremu positiboan daude. Herrialde nagusietako indizeek ere nabarmen egin dute gora hilabete horretan.